



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2019.10.29an EGINDAKO  
BILKURAKO AKTA**

**LEHENDAKARIA**

MAITE ANTON LENO

OÑATI

**BOKALAK**

GARAZI LARREA ZUMELAGA  
UNAI ELKORO OIANGUREN  
AINHOA CABERO GARCIA  
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA  
ARITZ MURUA ACHA  
GORKA ARTOLA ALBERDI  
AINHOA LETE ZABALETA  
CRISTINA MARQUINA IGARZA  
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA  
JUAN BENGOA PAGALDAY  
IZARO ELORZA ARREGI  
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

ANTZUOLA  
ARETXABALETA  
ARETXABALETA  
ARRASATE  
ARRASATE  
BERGARA  
BERGARA  
BERGARA  
ELGETA  
LEINTZ-GATZAGA  
OÑATI  
OÑATI

**ETORRI GABEAK**

MARIA UBARRETXENA CID  
ANDER GARAY ZABALETA  
JOSE RAMON ZUBIZARRETA ALEGRIA

ARRASATE  
ARRASATE  
ESKORIATZA

**BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

**JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK**

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2019ko urriaren 29an, 9:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno anderea, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

### **1.- Aurreko bilkurako akta onartzea**

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2019ko urriaren 4an egindako bilkura bereziko aktaren zirriborroa.

### **2.- ZERBITZU OROKORRAK**

#### **2.1.- Gobernu Juntaren ohiko bilkuren egutegia**

Gobernu Juntak aho batez onartu du 2019ko eta 2020ko Gobernu Juntaren ohiko bilkuren ondorengo egutegia:

- Azaroak 26
- Abenduak 17
- Urtarrilak 28
- Otsailak 25
- Martxoak 24
- Apirilak 28
- Maiatzak 26
- Ekainak 16
- Uztailak 28
- Irailak 22
- Urriak 27
- Azaroak 24
- Abenduak 15

#### **2.2.- 2019ko Aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea; kreditu gaikuntza bidezko kreditu aldaketaren 2019-KALD-000005-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena**

Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena eta ziurtagiria aztertu dira. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Gaia aztertu ondoren, Mankomunitateko Gobernu Juntak aho batez honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

### GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	12.707,42
6	INBERTSIO ERREALAK	108.880,60
8	FINANTZA AKTIBOAK	72.807,19
<b>GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA</b>		<b>194.395,21</b>

### SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	12.707,42
7 (SARRERAK)	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	108.880,60
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	72.807,19
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>		<b>194.395,21</b>

**Bigarrena.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontu-hartzailletza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

### **2.3.- Foru Kontratazio Zentrala; bulego materialez hornitzeko kontratuaren luzapena**

Zegokion espedientea izapidetu ondoren, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko foru diputatuak, 2017ko irailaren 1eko Foru Aginduaren bitartez, MONTTE, S.L. enpresarekin "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez bulego materialaren hornidura kontratatuzko esparru akordioa" burutzea ebatzi zuen.

Mankomunitate honek, espediente honi atxikia zegoenez, aipatu esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitu zuen. Kontratu honek bi urtebeteko indarraldia du, bi urtebeteko luzapen egiteko aukerarekin.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2019ko irailaren 19ko foru diputatuaren agindu bitartez, Esparru Akordioaren lehenengo luzapena onartu denez, eta Mankomunitateak bulego materialaren beharra izaten jarraitzen duenez, dagokion kontratu eratorriaren iraupenaren luzapena ebaztea dagokio.

Hori dela eta, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Urtebetez luzatzea bulego materialez hornitzeko MONTTE, S.L. enpresarekin sinatutako kontratu eratorria.

### **2.4.- Itzulpen zerbitzua kontratatzeko espedientea**

Mankomunitateak sortutako dokumentazioa euskaratik gaztelaniara eta gaztelaniatik euskarara itzultzeko prozedura ireki sinplifikatu bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusirik.

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Bideratu den kontratazio-espedientea onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Kontratazio hau arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea.
4. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.

### **3.- INGURUMENA**

#### **3.1.- Etxeko hondakinak biltzeko kontratuaren prezio berrikuspena**

“UTE DEBAGOIENA 2017” enpresa elkartearekin sinatutako etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko kontratuak bi urte bete dituzenez, bere Administrazio Klausula Berezien Pleguaren 8. klausulak jasotakoaren arabera, kontuhartzaileak prezio berrikuspena kalkulatu du. Kalkulu honen arabera, kontratuaren prezioak %3,37ko igoera jasango luke. Beraz, 2019ko urriaren 1etik aurrera hileko prezioa 227.263,32 €-tan finkatzen da.

Gobernu Juntak aho batez onartu du prezio berrikuspen hau.

#### **3.2.- Erabilitako olioak biltzeko eta kudeatzeko kontratuari buruzko proposamena**

Erabilitako olioak biltzeko eta kudeatzeko kontratuari buruzko Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoaren proposamenaren berri eman da. Bertan jasotzen da legealdi



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

aldaketa izan dela eta, nahiz eta gaur egungo kontratua urriaren 31n bukatu, orain arte ezin izan dela olio-bilketarako edukiontzi sistemaren inguruko erabakirik hartu lizitazio berria atera ahal izateko. Beraz, proposatzen du lizitazioa atera eta kontratu berria esleitu arte, gaur egun ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L. enpresarekin daukagun kontratua luzatzea.

Gobernu Juntak aho batez onartu du proposamen hau, baina Ingurumen Batzordearen legegaldi honetako lehen bileran gai hau tratatu eta edukiontzi-sistema berrira pasatzea erabaki denez, kontratazio espediente berria lehenbailehen prestatuz, eta sistema berria ezarri aurretik dagokion informazio kanpaina eginez.

### **4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA**

#### **Enplegua eta Prestakuntza**

##### **4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; hainbat luzapen eta fidantza bueltatzea**

- **E.O.I. (Dolulaguna); luzapena**

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2020ko irailaren 6ra arte, luzatzea Aretxabaletako Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 4-AR zerbitzu modulua erabiltzeko baimena, E.O.I. andreari emana, Gobernu Juntaren 2018ko uztailaren 17ko erabaki bitartez.

- **S.M.G. (Dir-dir Bitxiarte); luzapena**

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2020ko azaroaren 1era arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 1-ZM zerbitzu modulua erabiltzeko baimena, S,M,G. andreari emana, Gobernu Juntaren 2018ko urriaren 16ko erabaki bitartez.

- **M.C.A.; fidantza bat bueltatzea**

Enpresa Ekintzetarako Zentroaren modulu bat erabiltzeko emandako baimena dela eta aurkezturiko fidantza bueltatzeko espedientea ikusita.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak aho batez ondorengo ERABAKI DU:



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- M.C.A. ekintzaileari bere egunean jarritako 656,61 €-ko fidantza bueltatzea.
  
- G.L.L. (Gaizka Masajeak); fidantza bat bueltatzea

Enpresa Ekintzetarako Zentroaren modulu bat erabiltzeko emandako baimena dela eta aurkezturiko fidantza bueltatzeko espedienteak ikusita.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak aho batez ondorengoa ERABAKI DU:

  - G.L.L. ekintzaileari bere egunean jarritako 224,22 €-ko fidantza bueltatzea.
  
- A.A.A. (Metralus); fidantza bat bueltatzea

Enpresa Ekintzetarako Zentroaren modulu bat erabiltzeko emandako baimena dela eta aurkezturiko fidantza bueltatzeko espedienteak ikusita.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak aho batez ondorengoa ERABAKI DU:

  - A.A.A. ekintzaileari bere egunean jarritako 876,96 €-ko fidantza bueltatzea.
  
- X.U.I.; fidantza bat bueltatzea

Enpresa Ekintzetarako Zentroaren modulu bat erabiltzeko emandako baimena dela eta aurkezturiko fidantza bueltatzeko espedienteak ikusita.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak aho batez ondorengoa ERABAKI DU:

  - X.U.I. ekintzaileari bere egunean jarritako 205,83 €-ko fidantza bueltatzea.

### **4.2.- HUB-ekin SILVER ECONOMY Programan jarduteko GRUPO SERVICIOS SOCIALES INTEGRADOS S.COOP.-ekin lankidetzak hitzarmena**

GRUPO SERVICIOS SOCIALES INTEGRADOS, S. COOP. (aurrerantzean, SSI) bigarren mailako kooperatiba bat da, gizarte ekimenekoa, gizarte ekimeneko beste kooperatiba batzuk barne hartzen dituena, onura publikokotzat deklaratu, zeinak zerbitzu profesionalak eskaintzen dizkien partikularrei zein erakundeei, menpekotasun eta/edo zauggarritasun egoeran dauden pertsonentzako arretaren esparruan. Taldea bost erakundek osatzen dute: lau kooperatiba eta elkarte bat, eta, gizarte



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

interbentzioko zerbitzuez gain, I+G+B unitate bat (Home Care Lab) eta ezagutzaren zentro bat ere (SSI Training Center) dituzte. Bere xedeen artean dago Euskadin zaurgarritasun soziala eta menpekotasuna duten pertsonen behar sozialei erantzutea, modu integralean; horrenbestez, interesa dauka Debagoieneko Mankomunitatean garatzen diren jardueretan parte hartzeko.

Lankidetzaren hitzarmen hau SSI Taldearen proiektu batean kokatzen da, "SOCEM: SOCIAL CARE & EMPLOYEMENT HUB. Kod. 118.831039\_01", CEPESek finantzatuta, Europako Gizarte Funtseko (EGF) 2014-2020 Gizarte Inklusioko eta Gizarte Ekonomiako Programa Operatiboaren Bitarteko Erakundea den heinean, laguntza programa honen baitan: EKINTZAILTZETA SUSTATZEKO PLANA GIZARTE EKONOMIAKO FORMULEKIN, bere azken xedea izanik enpresak sortzea, horietatik lau gutxienez gizarte ekonomiaren ingurukoak.

Zahartzearen inguruan Debagoienean enplegua sortu eta ekintzailtza sustatzeko proiektu honek izan dezakeen interesa kontuan hartuz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- GRUPO SERVICIOS SOCIALES INTEGRADOS, S.COOP.-ekin HUB-ekin Silver Economy Programan jarduteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea, ondorengo klausulen arabera:

### LEHENENGOA.- Xedea

*Hitzarmen honen xedea da SSIn lankidetzaren oinarriak ezartzea Debagoieneko Mankomunitatean garatuko diren jardueretarako, "SOCEM HUB – Ekin Silver Economy" programari dagokionez.*

*Gipuzkoan 65 urte baino gehiagoko 158.000 pertsona daude, hau da, biztanleria osoaren ia %22, eta, Debagoienari dagokionez, zifra 14.500 pertsona ingurukoa da, hau da, biztanleriaren %23 baino gehiago. Herritarrek zahartzeak aukerak ematen dituen errealitate bat da, zahartzearen inguruan enplegua sortzeko eta ekintzailtza garatzeko. Ekintzailtza programaren deialdi honek negozio nitxo horretan zentratu nahi du, eta deialdian parte hartzen duten pertsonak sektore ekonomiko horretarantz proiektatu, sektorea hazten ari delako, eta negozio aukera handiak eskaintzen dituelako populazioa zahartzeak eragiten dituen askotariko beharrak asetzeko.*

*Programak multzo heterogeneo bat hautatu nahi du, bost-zazpi enpresa proiektukoa, eta aurreikusitako datak hauek dira:*

- "Go Social" jardunaldia: URRIKO 2. astea, 2 ordu 2019-10-07

- **HASIERAKO MENTORIZAZIOA - PRESTAKUNTZA** (2 hilabete) 2019ko URRIA-ABEND

1. eskola magistrala: 4 ordu 2019-10-23

2. eskola magistrala: 4 ordu 2019-11-06



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

3. eskola magistrala: 4 ordu 2019-11-20

4. eskola magistrala: 4 ordu 2019-12-04

*Debagoieneko Mankomunitateak, hainbat bitartekoaren bidez, bere jardueretan SSIk duen partaidetzaren zabalkundea egingo du, xede edo helburu espezifikoa betetzeari dagokionez, jakina.*

### BIGARRENA.- Lankidetzaren garapena eta aldean ekarpenak

**SSIk** Debagoieneko Mankomunitatearekin batera egiten diren programa, proiektu eta zerbitzuen zabalkundea egingo du, eta publikoarekiko egiten diren komunikazioetan euskaren erabilera zuzena eta arina egiten dela bermatuko du.

**SSI** arduratuko da planteatutako jardunaldia garatuko duten profesionalen, baita eskola magistralez eta aurreratutako mentorizazioaz, Debagoieneko Mankomunitateari inolako kosturik eragin gabe.

Debagoieneko Mankomunitateak berriz, espazioak lagako ditu erabiltzeko, Lankidetzaren Hitzarmen honen helburuko ekintzak bere instalazioetan egin ahal izan daitezen, eta zabalkundea egingo du, hainbat bitartekoaren bidez, xede edo helburu espezifikoa betetzeari dagokionez, jakina.

### HIRUGARRENA.- Logotipoak eta markak

Debagoieneko Mankomunitateak eta SSIk baimena ematen diote elkarri Hitzarmenaren xedearen inguruko komunikazioetan euren logotipoak erabiltzeko, erakunde kolaboratzaileak diren heinean, betiere kontuan hartuta:

- Debagoieneko Mankomunitateak eta SSIk euren marka eta logotipoak erabili ditzakete betiere hitzarmenari lotutako dokumentazioan, publikitatean eta beste ekintza batzuetan, eta logotipoaren jabeari aurrez kontsulta eginda.
- SSIk Debagoieneko Mankomunitatearen logoa eta alderantziz erabiltzeko arau eta jarraibideak bi erakundeek elkarri ezartzen dizkietenak izango dira. SSIk eta Debagoieneko Mankomunitateak beretzat erreserbatzen dute edozein unetan erabilera hori erakunde bakoitzak ezarritako arauekin bat datorrela egiaztatzeko eskubidea.

### LAUGARRENA.- Informazio konfidentziala eta datu pertsonalak babestea

Lankidetzaren hitzarmen hau lortzeko izandako elkarrizketen esparruan, eta hortik abiatuta erabakitzen diren ekintzen esparruan, aldeek informazio jakin bat eman diezaiokete elkarri euren jarduerari eta horien garapenari eta materialei buruz, betiere hori guztia akordio hau betetzeko beharrezkoa bada. Aldeek onartzen dute elkarri ematen dioten informazioa konfidentzialtzat joko dela





## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

*(salbuespentzat hartuta izaera publikokoak, beste aldeak jada ezagutzen duena edo legeak eskatuta hirugarren bati derrigor jakinarazten diona), eta, horregatik, konpromisoa hartzen dute erabateko sekretua mantentzeko beste aldetik lortzen duen informazioaren gainean, hitzarmen hau betez.*

*Hitzarmen honetan ezarritakotik eratorritako konfidentzialtasun betebeharrak hitzarmena indarrean dagoen bitartean iraungo du, eta amaitu eta gero ere jarraituko du. Halaber, bi aldeek konpromisoa hartzen dute informazio konfidentziala elkarri itzultzeko edo suntsitzeko hitzarmena amaitzen denean, horretarako ez delarik izango errekerimendurik.*

*Aldeek konpromisoa hartzen dute beste aldeak emandako informazioa edo material ez kopian, erreproduzitu edo lagatzeko, eta ez dute onartuko beste pertsona fisiko edo juridiko batek informazioa edo materialak kopian, erreproduzitu edo zabaltzea, izan osorik, partzialki edo edozein modutan, beste aldeak aurretiaz eta berariaz eta idatziz baimenik eman gabe.*

*Hitzarmen honen xedeko konpromisoak indarrean dagoen legedia/araudia betez beteko dira datu pertsonalen babesari dagokionez, zehazki, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko erregelamendu orokorra); eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa.*

### BOSGARRENA.- Aldaketak

*Aldeek Hitzarmen honetan onartutako alderdi, eskubide eta betebeharren inuruko aldaketa oro elkarrekin adostuta erabakiko da.*

### SEIGARRENA.- Aldeen independentzia

*Hitzarmen honetako aldeek berariaz adosten dute Hitzarmenak ez dakarrela inolako elkartze edo menpekotasunik elkarrekiko, eta, ondorioz, guztiz independenteak eta autonomoak izango dira, eta SSri ez zaio inolako erantzukizunik emango, ezta subsidiarioki ere, Debagoieneko Mankomunitateak hirugarrenekin har ditzakeen betebeharrengatik, bereziki bere kargu dituen langileengatik.*

### ZAZPIGARRENA.- Iraupena/Indarraldia

*Hitzarmen honek behartu egiten ditu aldeak, sinatzen den datatik eta deialdia guztiz aplikatu, gauzatu eta ebaluatu arte, inola ere 2020aren amaiera baino gehiago luzatuko ez delarik, programaren faseetarako data hauek aurreikusten direlarik:*



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- "Go Social" JARDUNALDIA: URRIKO 2. astea, 2 ordu 2019-10-07

- **HASIERAKO MENTORIZAZIOA - PRESTAKUNTZA** (2 hilabete) 2019ko URRIA-ABEND

1. eskola magistrala: 4 ordu 2019-10-23

2. eskola magistrala: 4 ordu 2019-11-06

3. eskola magistrala: 4 ordu 2019-11-20

4. eskola magistrala: 4 ordu 2019-12-04

- **MENTORING AURRERATUA**: 2019ko abenduaren 16tik aurrera

### ZORTZIGARRENA.- Akordioa suntsiaraztea

*Aldeek Hitzarmen hau suntsiarazitzat jo ahal izango dute bietako batek Hitzarmenaren arabera hartzen dituzten betebeharrak edozein betetzen ez badu, betebeharra bete ez duen aldeari 15 egun lehenago modu frogagarrian jakinaraziz.*

### BEDERATZIGARRENA.- Jakinarazpenak

*Aldeek Hitzarmen honen arabera egiten duten komunikazio oso idatziz egingo da eta edozein modu frogagarrian entregatuko da. Jakinarazpenak egin ahal izateko, helbide hauek zehazten dira:*

DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA  
Nafarroa etorbidea, 17 – behea  
20500 Arrasate-Mondragon

GRUPO SERVICIOS SOCIALES INTEGRADOS, S. COOP  
Aita Lojendio, 1 – 1.a, Bilbo - 48008

### HAMARGARRENA.- Lagapena

*Debagoieneko Mankomunitateak ezingo dio inolako pertsona fisiko edo juridikori laga Hitzarmen honetatik eratortzen diren eskubideak eta betebeharrak, SSiren aurretiazko baimenik gabe, berriaz eta idatziz."*



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

### 5.- LEHENDAKARITZA

#### 5.1.- Lehendakariordea aukeratzea

2019ko irailaren 17an egindako Mankomunitateko Gobernu Juntaren eraketa bileran Beñardo Kortabarría Olabarria izan zen lehendakariorde hautatua, baina bere kargua onartu ondoren, jakinarazi zuen denboraldi labur baterako izango zela, asmoa Antzuolako ordezkari titularra aldatzea baitzen.

Orain, Antzuolako Udalak Gobernu Juntarako bere ordezkari titularra aldatu ondoren, Mankomunitateko Estatutuen 11. artikuluan jasotako prozedura jarraituz, lehendakariorde berria hautatu da, GARAZI LARREA ZUMELAGA, Antzuolako Udaleko ordezkari titular berria.

GARAZI LARREA ZUMELAGAk bere kargua onartu du eta kargu hori indarrean dauden Estatutuek eta gainerako xedapen aplikagarriek ematen dizkieten ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiekin zertzeko hitza eman du Gobernu Juntaren aurrean.

#### 5.2.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

**19/62.- LEHENENGO.-** GRUPO S21 SEC GESTIÓN, S.A. enpresari esleitzea, "Foru Kontratazioen Zentralaren bidez datu pertsonalen babesaren eta informazioaren segurtasunaren inguruko egokitzapen zerbitzuaren datuen babeserako delegatu zerbitzua kontratatzeko esparru akordio"-tik eratorritako kontratua 2019ko abenduaren 1etik aurrera urteko 2.649,60 €-ko prezioan, gehi BEZa, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

**BIGARREN.-** Kontratu honi dagokion gastua onartzea, ondorengo kontusailaren kargura: 1000.227.920.00.99.

**19/63.-** 19/19 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA HAMABOST MILA ETA HOGEITA HAMABI EURO ETA HIRUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (415.032,76 €).

**19/64.-** 1.- Zehapen espedientea irekitzea Bergarako Elorregi 37, 2, ezkerrean bizi den F.B.R. jaunaren aurka, 2019ko ekainaren 2an eta irailaren 20an ustez egindako bi falta arinengatik, Udaltzaingoaren bi txostenetan jasotako gertaera hauetan oinarrituta:

#### **2019ko ekainaren 2an**

*"2019ko ekainaren 2an Olako auzokideak deitu zuten autobus geltoki inguruan zikinkeria pilatzen ari zirelako. Bergarako Udaltzaingoaren 19 eta 44 zk. Duten udaltzainak bertaratu ziren eta horrela zela egiaztatu zuten.*



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Hurrengo egunean Fernando Baptistarekin hitz egitea lortu zuen 43 zk. Duen udaltzainak. Zikinkeria berarena zela eta ostiralerako batuko zuela adierazi zuen.

2019ko ekainaren 12an, 19 eta 60 zk. duten udaltzainak bertarau gara eta, nahiz eta zabor gutxiago egon, ez du guztiz batu.”

### 2019ko irailaren 20an

“2019ko irailaren 20an, arratsaldean dei abisu bat jaso genuen kexatzeko Olabarrena auzoko busaren geltokiaren barruan tresillo bat lagata zegoela. Momentu honetan ezin izan genuen kexa konprobatu, oso lanpetuta geundelako.

2019ko irailaren 21ean, 10:00etan, aipaturiko tokian bertaratu ginen eta salatutakoa egiaztatu genuen. Busaren geltokiaren barruan, tresillo handi bat sartuta zegoen eta geltokiaren erabilera asko oztopatzen zuen.

Beste batzuetan ere, toki berean, horrelako gertaerak izan dira. Kasu guztietan, txatarra biltzen ibiltzen den F.B.R., NAN XXXX izan da. 2019ko ekainean ere, gauza bera gertatu zen eta UDOR190607 txostena egin genuen.

Hau kontutan edukita, 15 zk udaltzainak Fernandori zuzenean telefonoz deitu zion. Fernandok, hasieratik eta naturaltasun osoz, berak sartu zuela aitortu zuen. Bezperan euri handia bota zuela eta ez bustitzeko egin zuela esan zuen.

Berehala ateratzeko agindu zion udaltzainak eta txosten bat egingo genuela jakinarazi zion. 16:45etan kenduta zegoela ikusi genuen.”

Arau-hauste hauek Debagoieneko Etxeko Hondakinen Bilketa arautzen duen Ordenantzaren 82.3 artikuluan a) eta c) ataletan daude ezarrita, **arau-hauste arintzat jota**; honela, hain zuzen: **a) “Hondakinak Mankomunitateak zehaztutako moduak errespetatu gabe, hondakinak uzteko lekuetatik kanpo, edo zerbitzuaren egutegitik edo ezarritako ordutegitik kanpo uztea”** eta **c) “Hondakinak bide publikoan botatzea”**.

Aipaturiko Ordenantzan 83.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, arau-hauste arinak egiteagatik 60 eta 2000 € arteko isunak jar daitezke. 1. arau-haustea bada, 60 € eta 600 € arteko isunak. Artikulu bereko 2. atalean esaten da: “Zigorak ezartzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: Arau-haustea egin duen pertsonaren zirkunstantziak, erru maila, araua behin eta berriz hautsi izana; parte hartze maila eta lortutako onura, eta ingurumenari eragindako kaltearen neurria edota pertsonen osasuna kaltetzeko eragindako arriskua”, eta 3. atalean gaineratzen du “Zigorra ezartzeaz gain, Mankomunitateak eskubidea izango du kalte-galerengatik dagokion ordaina eskatzeko”.

**Kasu honetan, lehen espediente zigortzailea denez, aipatu ingurumariak kontuan hartuta, proposatzen da 60 €-ko gutxieneko isuna ezartzea, espedientearen instrukzioetik ateratako ondorioen kalterik gabe.**

2.- Espediente honen instruktorea Belen Txintxurreta Iparragirre izango da, Mankomunitateko Behin-behineko Idazkaria, zeina errekusatu ahal izango baita Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako termino eta kasuetan.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

3.- Bergarako F.B.R. jaunari Ebazpen hau jakinaraztea, eta 15 eguneko epea ematea komenigarritzat jotzen dituen alegazioak, agiriak edo informazioak emateko eta frogaldi bat irekitzeko eskatzeko eta egokitzen jotzen dituen frogak proposatzeko, ohartaraziz, espedientea hasteko akordioaren edukian aurreikusitako epean alegaziorik aurkezten ez bada, akordioaren edukia ebazpenerako proposamentzat joko dela.

4.- **Halaber, usteko erantzuleari jakinaraztea bere erantzukizuna bere borondatez aitortzeak eta ebazpenaren aurretik bere borondatez ordaintzeak, guztira, %50eko murrizketa bat eragingo duela proposatutako zehapenaren zenbatekoaren gainean, %25 kasu bakoitzean.** Aurkako adierazpenik egin ezean, ulertuko da borondatezko ordainketak erantzukizuna aitortzea dakarrela. Murrizketa horien eraginkortasunerako baldintza izango da zehapenaren aurka administrazio bidetik egin daitekeen edozein ekintza edo errekurso ezestea edo uko egitea.

5.- Ebazpen honen berri Bergarako Udalarari ere ematea.

**19/65.-** 1.- Zehapen espedientearen irekitzea Eskoriatzako Dorleta 13, 4, eskuman bizi den R.J. jaunaren aurka, 2019ko irailean ustez egindako falta arin batengatik, Udaltzaingoaren txostenean jasotako gertaera hauetan oinarrituta:

*“2019ko irailaren 21ean, 18:55ean emakume batek esan zigun Matxiategi 12aren parean dauden zabor edukiontzien alboan norbaitek kristal zati handi batzuk utzi zituela. Ondoan hurren jolas parkea dagoela eta arriskutsua izan daitekeela.*

*Segidan, 55 zkidun udaltzaina gerturatu eta aipatutako tokian beira-edukiontzien alboan kristal lodidun hainbat plaka aurkitu zituen. Haietako batzuk apurtuta zeuden gainera. Zatiak handiak eta pisutsuak zirenez, ez ziren gure kabuz erretiratzeko modukoak. Pasiatzen ari zen gizon batek udaltzainari adierazi zion Matxiategi kalean (7aren parean) itxita dagoen harakindegitik ateratzen ikusi zituela gizon batzuk.*

*20:30ean, 29 eta 55 udaltzainak gerturatu ziren berriro eta beste mutil batek gauza bera esan zigun, harategi zaharretik atera zituztela kristalak. Harategia zegoen lokala kale berean dagoen ANTIA harakindegiko jabeak erositako duenez, berarengana joan ginen ia zerbait bazekien galdetzeraz. José Antia Urangak esan zigun errentan jarria duela lokala eta bertan ibili izan direla egunotan trastoak ateratzen. Beraien telefonorik ez zuela baina lortuko zuela beraiekin harremanetan jartzea esan zigun. Berehala kristalak handik erretira zitzatela esan genion, arriskutsua izan zitekeela eta.*

*2019ko irailaren 22an, goizeko lehen patruila egiten ari direla 15 eta 42 udaltzainek kristalak toki berean zeudela ikusi dute.*

*10:30etan 42 eta 55 udaltzainak gerturatu dira berriz eta edukiontzi ingurua zintaz babestu ondoren, Matxiategi 7ko lokalera gerturatu dira. R.J. (NAN-XXXX) zegoen bertan lokala margotzen. Udaltzainei esan die lokalean egurrezko altzairuak baino ez zeudela eta asteartean atera zituela trasto zaharren gunera “udaletxean” baimena eskatu ondoren. Kristalezko bitrinak ez dituela berak atera ere esan du. Hori entzundakoan, korreo bat bidali diegu obra eta zerbitzuetako arduraduneri, astelehenean, lehen orduan, kristalak erretira ditzaten.*

*Jarraian, Antia harakindegira joan eta berriz hitz egin dute udaltzainek José Antiarekin. Esan die berak lokala alokatu zienean, lehen zegoen moduan utzi ziela, harakindegi*



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

*zaharreko kristalezko erakusleihoeekin. Gainera erakusleiho horiek botata daudenak bezalakoak zirela esan digu, lisuak eta ez kurbatuak.”*

Arau-hauste hauek Debagoieneko Etxeko Hondakinen Bilketa arautzen duen Ordenantzaren 82.3 artikuluan a) eta c) ataletan daude ezarrita, **arau-hauste arintzat jota**; honela, hain zuzen: **a) “Hondakinak Mankomunitateak zehaztutako moduak errespetatu gabe, hondakinak uzteko lekuetatik kanpo, edo zerbitzuaren egutegitik edo ezarritako ordutegitik kanpo uztea”** eta **c) “Hondakinak bide publikoan botatzea”**.

Aipaturiko Ordenantzan 83.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, arau-hauste arinak egiteagatik 60 eta 2000 € arteko isunak jar daitezke. 1. arau-haustea bada, 60 € eta 600 € arteko isunak. Artikulu bereko 2. atalean esaten da: *“Zigorak ezartzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: Arau-haustea egin duen pertsonaren zirkunstantziak, erru maila, araua behin eta berriz hautsi izana; parte hartze maila eta lortutako onura, eta ingurumenari eragindako kaltearen neurria edota pertsonen osasuna kaltetzeko eragindako arriskua”*, eta 3. atalean gaineratzen du *“Zigorra ezartzeaz gain, Mankomunitateak eskubidea izango du kalte-galerengatik dagokion ordaina eskatzeko”*.

**Kasu honetan, lehen espediente zigortzailea denez, aipatu ingurumariak kontuan hartuta, proposatzen da 60 €-ko gutxieneko isuna ezartzea, espedientearen instrukzioetik ateratako ondorioen kalterik gabe.**

2.- Espediente honen instruktorea Belen Txintxurreta Iparragirre izango da, Mankomunitateko Behin-behineko Idazkaria, zeina errekusatu ahal izango baita Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako termino eta kasuetan.

3.- Eskoriatzako R.J. jaunari Ebazpen hau jakinaraztea, eta 15 eguneko epea ematea komenigarritzat jotzen dituen alegazioak, agiriak edo informazioak emateko eta frogaldi bat irekitzeko eskatzeko eta egokitzeak jotzen dituen frogak proposatzeko, ohartaraziz, espedientea hasteko akordioaren edukian aurreikusitako epean alegaziorik aurkezten ez bada, akordioaren edukia ebazpenerako proposamentzat joko dela.

4.- **Halaber, usteko erantzuleari jakinaraztea bere erantzukizuna bere borondatez aitortzeak eta ebazpenaren aurretik bere borondatez ordaintzeak, guztira, %50eko murrizketa bat eragingo duela proposatutako zehapenaren zenbatekoaren gainean, %25 kasu bakoitzean.** Aurkako adierazpenik egin ezean, ulertuko da borondatezko ordainketak erantzukizuna aitortzea dakarrela. Murrizketa horien eraginkortasunerako baldintza izango da zehapenaren aurka administrazio bidetik egin daitekeen edozein ekintza edo errekurtsio ezestea edo uko egitea.

5.- Ebazpen honen berri Bergarako Udalarari ere ematea.

**19/66.-** 2019ko irailaren 20ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako Hezkuntzako sailburuaren 2019ko irailaren 10eko Aginduan ezarritako baldintzetan 2019-2020 ikasturtean Eskolatze Osagarriko programa emateko diru-laguntza eskatzea.

Ebazpen honen berri Gobernu Juntari ematea datorren bilkuran.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**19/67.-** 19/20 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU EURO ETA LAUROGEITA HAMALAU ZENTIMO (189.394,94 €).

**19/68.-** **Lehenengoa.-** Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera

### GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	67.248,30
<b>GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA</b>		<b>67.248,30</b>

### SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	67.248,30
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>		<b>67.248,30</b>

**Bigarrena.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontu-hartzailatza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa eta egintza honen berri mankomunitatearen batzarrari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

### 6.- GALDE-ERREGUAK

- Eskualdeko Jubilatuen eskaera; erantzungo zaie azaroaren 26an, 9:30etan, egingo den Gobernu Juntaren bilerara etortzeko. Gobernu Junta hasi aurretik egingo da beraiekin bilera.
- HOBEBE Elkartea (Hondakinen Kudeaketa Hobetzeko Euskal Herriko Toki Erakunde Elkartea); hauek abenduko Gobernu Juntaren bilerara etorriko dira.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 10:30etan, bukatutzat eman da bilkura.

**LEHENDAKARIA**

**BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**